

Familia agurgarria:

Idazki honen bidez **HEDATZE** proiektuan **lehenengo hiruhilekoan (urriaren 26tik azaroaren 23rarte, 5 ostegun guztira)** ikasleei eskainiko dizkiegun tailerren inguruan informatu nahi dizuegu. Tailerrak **ostegunetan, 15:30etik 17:30era** burutuko dira.

Tailerren ezaugarriak askotarikoak direnez, ondoren zehaztuko dira tailer bakoitzaren datak, informazioa eta bestelako xehetasunak:

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Erritmo tailerra</b>	Iñigo Lopez de Sosoaga	Urriaren 26etik azaroaren 16arte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Txalaparta, gorputz perskusioa eta orff lantzea.	
<b>Saio kopurua</b>	4 saio	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Zinema eta Filosofia</b>	Jorge Caminos	Urriaren 26etik azaroaren 23arte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle eta irakasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Zinemaren baitan ageri diren auzi filosofikoak aztertzea. Fikzioaren erabilgarritasuna aintzat hartzea hausnarketarako baliabide bezala. Gure garaiko produktu kultural ospetsu eta arrakastatsuenaren balio filosofikoa aintzat	
<b>Saio kopurua</b>	5 saio	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Badminton</b>	Enrique Balsategui	Urriaren 26etik azaroaren 23arte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Badmintonen jolasten ikastea eta aldi berean ondo pasatzea.	
<b>Saio kopurua</b>	5	

Tailerra	Arduraduna	Data
<b>Xake Tailerra</b>	Oscar Toril (ZIG)	Urriaren 26tik Urtarrilaren 11rarte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Xakean jolasten ikasiko dute eta, dakitenek, hobetzeko aukera izango dute.	
<b>Saio kopurua</b>	7	

Tailerra	Arduraduna	Data
<b>Sukaldaritza osasuntsua</b>	Amaia Montans (FIKI) Alnara GIZ de Langarica (Mate)	Urriaren 26etik azaroaren 23rarte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Tailer honen bidez gazteek elikadura osasuntsu batez gozatzea erraza dela adierazi edo helaraztea litzateke. Horretarako, elikagaiak dituzten etiketak irakurtzen erakutsi, hainbat elikagai dastatu eta zenbait plater sukaldatuko ditugu. Ikasle kopuru maximoa: 12	
<b>Saio kopurua</b>	5	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Hezikidetza</b>	Monica Boneco	Datak zehazteke **Apuntatzen diren ikasleei jakinaraziko zaie
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Ikasleen arteko bizikidetza sustatzeko ekintza ezberdinak garatuko dira.	
<b>Saio kopurua</b>	2	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Euskara batzordea</b>	Ane Bedaio	Datak zehazteke **Apuntatzen diren ikasleei jakinaraziko zaie
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko ekintza ezberdinak garatuko dira	
<b>Saio kopurua</b>	2	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Euskarazko filmak eta telesaioak</b>	Ane Bedaio	Urriaren 26etik azaroaren 16arte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Euskal kulturaz gozatu nahi? Gazteak protagonista dituzten istorio zirraragarriak ikus ditzakegu, barrez lehertzekoak, emakumeek ekoitzitakoak, euskal zinemako berrienak, euskal musika eta musikariei buruzkoak, baita suspensea maite dutenentzako film eta telesailak ere. Zein nahiago duzu? Bazatoz gurekin film eta telesailak ikusiz gozatzera? Animatu! Polita izango da eta. Ikusi eta tertulia atseginak partekatzeke momentu ezin hobea	
<b>Saio kopurua</b>	4 saio	

Zuen seme/alaba edozein tailerretan interesatuta badago, etxera eramango duen matrikula-orria osatu eta sinatu eta zuen seme/alabak bere **tutoreari** entregatu beharko dio **urriaren 20a baino lehen (ostirala)**.

Adeitasunez,

Zabalgana BHI